



Malenkonia

1

Eser zaitez leku lasai batean. Idatzi honako hau.

- Erraz lor ditzakezun hiru gauza atsegingarri.

- Saiatuz gero lor ditzakezun hiru gauza atsegingarri.

- Lortzea ezinezkoa iruditzen zaizun hiru gauza atsegingarri.

- Zer egin zenezake azken horiek lortzeko?

2 Irakurri Emoziotegiko 64. orrialdean **malenkoniari** buruzko testua, eta erantzun galderei.

● Zer emozio da sakonagoa: malenkonia ala nostalgia?

● Noiz ager daiteke malenkonia?

● Atsegina al da malenkonia? Zergatik?

● Zer egin nahi izaten du malenkoniatsu dagoen pertsona batek?

3 Irakurri **etsipen** hitzaren esanahia. Gero, markatu hitz hori zuzen erabili den esaldia.

etsipen

Konponbiderik ez duen edo nahi ez zen zerbait onartzeko pazientzia, asmo ona eta gaitasuna.

Mirenek Koldori esan zion ez zela berarekin jolastuko, eta Koldok etsipenez hartu zuen erabaki hori: etengabe kexaka jardun zen, eta ideia aldatzeko konbentzitzen saiatu zen.

Mirenek Koldori esan zion ez zela berarekin jolastuko, eta Koldok etsipenez hartu zuen erabaki hori: Mirenen erabakia onartu zuen, eta denbora pasatzeko beste modu bat aurkitu zuen.

● Orain, inguratu beste esaldian erabil zenezakeen hitza.

esanekotasuna mutirikeria otzantasuna axolagabetasuna

4

Zer esan nahi du **desagertu** hitzak? Aukeratu egokiena iruditzen zaizun esanahia.

- Zerbait zati oso txikitan zatituz desegitea.
- Ezkutatzea, galtzea, ezerezean geratzea.
- Zerbait kontu handiz bilatzea.
- Zer esalditan erabili da zuzen **desagertu** hitza? Hautatu.
 - Ogia ondo desagertu behar dugu txoritxoei eman aurretik.
 - Maddik ikusi zuenean bere neba Axel ondo zegoela, haren beldur guztiak desagertu ziren.
 - Gela osoa desagertzen ari naiz, galdu dudako koaderno hori aurkitzeko.
- Orain, kopiatu **desagertu** hitza zuzen erabilia ez duten esaldiak, eta jarri haren ordez hitzik egokiena:

zatitu

arakatu

5

Hautatu kasu bakoitzean kontrako esanahia duen hitz bat.

- burutu → hasi bukatu iritsi
- flotatu → mantendu igurtzi hondoratu
- gozatu → bereizi aspertu itxaron

6 Sentitu al duzu inoiz tristura edo atsekaberik honako egoera hauetakoren batean? Markatu.

- Hondartzan igarotako arratsalde dibertigarri baten amaieran.
- Gogokoen duzun kirolean lehiaketa bat izan ostean.
- Amonaren etxean igarotako asteburu baten ostean.
- Zurekin jolasean ibili ondoren lagun bat joaten denean.

6 Zergatik uste duzu sentitzen duzula atsekabe hori? Markatu.

- Berriz gertatuko ez diren gauzak direlako.
- Bukaera bat duten gauza politak direlako.
- Haiek egin ostean betebeharren bat izaten delako beti.

7 Idatzi malenkonia gainditzeko errezetak.

8 Idatzi zure ustez nola jokatuko duten pertsona hauek egoera honen aurrean.

Uda amaitu da... Bihar eskolara itzuli behar da berriz.

Pertsona baikor batek → _____

Pertsona alfer batek → _____

Pertsona malenkoniatsu batek → _____

Pertsona urdurí batek → _____

Pertsona beldurtí batek → _____

9 Orain, pentsa ezazu zu zaudela egoera horretan (gaur amaituko da uda, eta bihar eskolara itzuli behar duzu). Zer sentituko zenuke?

malenkonia

euforia

beldurra

tristura

jakin-mina

urduritasuna

gogo handia

poza

sosegua



Malenkonia

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.